

MARIA MARKOTEGI SARIAK 2016

OINARRIAK

Parte hartzaileak: Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak: Lehiaketak sail bakarra izanen du: ilustrazioa.

Kategoriak: Lehiaketak kategoria bakarra izanen du: LHko 1. eta 2. mailletako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea: Lanak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 18an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32

31830 Lakuntza

Telefonoa: 948 464840

e-posta: euskara1@sakana-mank.com

Lanak aurkezteko modua: Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izengoitia, saila eta kategoria.

Baldintzak:

- Hurrek Itziar Zubizarretak moldatutako *Azenario soroa* ipuin ingelesa ilustratu beharko dute.
- Ilustrazioak A4 formatudun orrietan egin beharko dira. Margo mota eta teknika guztiak onartuko dira.
- Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bat aurkez dezake.

Sariak: Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira bi sari izanen dira.

LHko 1. eta 2. mailletako ikasleena	1. saria	Pintura zorro osatu bat
LHko 1. eta 2. mailletako ikasleena	2. saria	Pintura zorro osatu bat

Sari banaketa: Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Argitalpena: Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturan nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egiten ditu. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak ex aequo moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

AZENARIO SOROA

Aspaldiko jai egun batean, Peru baserritarra ikusmiran zebilen bere soroen artean. Eta bazter batetik, soinu harrigarri bat entzun zuen.

–Tik-tik; tik-tik! Tik-tik; tik-tik!!!

– Hara, bai harrigarria! Aza baten gainean okila!!!

Baina soinuak jarraitzen zuen, eta Peruk, adi-adi, bazter guztiak miatu zituenean, gizon txiki-txiki bat ikusi zuen lurrezko ontzi bat jo eta jo bere mailu txikiaz. Iratxo moduko bat zen, bere lapikoko zuloa konpondu nahian.

–Baina, baina! Iratxo bat al zara?

–Bai, bistan da.

Peru baserritarrak bazekien iratxoek urrez beteriko ontziak ezkututzen dituztela eta haren urre mordoa beretzat hartuko zuela pentsatu zuen. Baina iratxoei zuzen-zuzen begiratu behar zaie begietara haiekin hitz egiteko; bestela, ez bat eta ez bi, desagertu egiten dira. Peruk beraz, begiak iratxoen begietan tinkatu zituen galdetzeko:

–Zer egiten duzu gure sorooan?

–Zuri zer inporta zaizu?

–Agian kontatuko didazu zer daukazun lapiko horretan...

–Hemen? Garagardo goxo bat...

–Emango al didazu pixka bat?

Iratxoa urduri jartzen hasi zen, baina ezin zuen mugitu, Peru baserritarra begira-begira zuen bitartean.

–Gazte. Zu hemen denbora-pasa zauden bitartean, zuen behiak ihes egin du ukuilutik, korrika sartu da gari-sorooan eta bidean harrapatzen dituen guztiak txikitzen ari da.

Peru ezustean harrapatu zuen iratxoak, eta beste aldera begiratu behar zuenean, iratxoa harrapatu eta esku artean heldu zuen tinko.

–Zer behi eta zer behi ondoko! Gezurretan ari zara. Nik beste aldera begiratzea nahi zenuen zuk ihes egiteko! Zure urrea non duzun jakin arte, ez zaitut askatuko.

–Beno bada, erakutsiko dizut. Beste aldean dagoen azenario sorora joan beharko dugu aurkitzeko.

Joan eta joan iritsi ziren azenario sorora, eta iratxoak azaldu zion:

–Ikusten duzu azenario landare handi hori? Bada horren inguruan gorde nuen aspaldian nire urre-ontzia.

Peru begira-begira geratu zen, baina ibilalditxo bat egitera atera zenez ez pala, ez aitzurra eta ez lurra mugitzeko balio zuen ezer ez zuen ondoan. Orduan lepoko zapi gorria lotu zion landareari, eta iratxoa astindu ondoren esan zion:

–Etxera joan behar dut pala baten bila, baina zin egin behar didazu zapi hau ez duzula kenduko.

–Ez, ez. Badakizu gainera iratxoek ezin dugula gezurrik esan.

Baserritarra bada, korrika batean joan zen bere etxera pala baten bila. Eta korrika batean bueltatu zen etxetik pala eta guzti. Baina azenario sorora iritsi zenean, ahoa bete hortz geratu zen. Landare bakoitzak zapi gorri bat zuen bere inguruan, eta ezin jakin zeinen azpian gordeta zegoen urre-ontzia... Iratxoa lasai-lasai gorde zen bere etxean.

–Non? Ez dakit. Nik ez dut inoiz iratxorik ikusi... Gezurra esan al zuen iratxoak?